

HIZKUNTZA ANIZTASUNAZ ATZERRIKO ZENBAIT IKASGAI

Imanol Esnaola

SEI elkartea

Helbide elektronikoa: bat@sortu.org

Aldizkari honen dossierrean hizkuntza normalkuntzak eta hizkuntza aniztasunak elkarrekin duten uztardura aipagai dugu. Honekin batera doazen lanek euskararen geroratzean helburu soziolinguistikoak eta linguistikoak elkarrekin zeinen estu lotuta doazen azaltzen saiatu gara.

Dena den, auzi hau ez da gurean soilik mintzagai. Gure inguruko eta urrunagoko herrietan ere gertu gertutik bizi dute aniztasunaren auzia. Horietan ere, beraz, bada zer ikusi eta zer ikasi. Hori dela eta gaiari heldu dioten zenbait lanen mamia ondorengo lerroetan jasotzen ahalegindu gara. Ez da bilduma lana, zenbait lan interesgarriren irakurketa iruzkin-dua baizik. Dena den, jakin beza gaien sakontzeko gogoz dagoen irakurleak honi buruzko bibliografia zabala topatuko duela HARE liburutegian bertan.

MARKA ETNIKOAK HIZKUNTZA ERREPERTORIOA ABERASTEKO

Ben Rampton jaunak bere lanik ezagunenean (Rampton, Ben (1995): *Crossing, language and ethnicity among adolescents*. Londres, Longman) arreta berezia jartzen du Erresuma Batuko gazteen komunikazio arauak azter-

tzen. Zehatzago esanda, Erresuma Batuko gazteek indarreango hizkuntza eta komunikazio arauak apurtzeko egiten dituzten ahaleginak eta horren bitartez eraikitzen dituzten komunikazio moduak ditu aztergai.

Lan honek ingelesaren errealitatean hizkuntza aniztasunari zein leku dagokion eta zenbaterainoko garrantzia duen ulertzen lagunduko digu. Egilearen aburuz, gizartean indarrean dauden komunikazio arauen apurketa aztertu nahi denean arreta bereziz erreparatu behar zaie gizartean indarrean dauden komunikazio eremuei, erabilera ohiturei edo harreman sareei. Izan ere, horien baitan gertatzen da komunikazioa. Eta horien baitan gertatzen da nabarmen eta esanguratsu desberdintasuna

Egilearen aburuz, arauak apurtzeko prozesuak zer-nola diharduten ezagutzera iristeko gizabanakoaren jokamoldeak indarreango joera sozialekin duen lotura ulertzera iritsi behar da. Rampton jaunaren iritiz harreman hori dialektikoa da. Hots, hiztunak edo hiztun taldeek gizartearekin eta bere arauekin duten harremanaren arabera konberjentziatzko edo diberjentziatzko jarrera hartzen dute. Bestela esanda, arauak bete edo apurtzeko jarrera hartzen dute.

Giza komunikazioan konbentzionaltasuna eta erregularitasna nagusi dira, horrek egiten du giza komunikazioa ulergarri. Egun baten buruan pertsona batek kudeatu behar dituen egoera desberdinak horrenbeste dira, ordea, arau horiek ez direla beti aplikagarri gertatzen. Erreferentziak dira, ez automatikoki eta mugagabe aplikatzen diren arauak.

Gure ohiko jardunean soinu, hitz, objektu, gai, hizketa molde, interakzio egitura, rol, egoera eta abar jakinak agertuko zaizkigulakoan jarduten gara. Komunikazioan elementu bat besteari kateatzen zaion neurrian espero dugun erantzunarekin topo egiten dugu. Sarri gertatzen da, ordea, hiztunok espero ez ditugun hizketaldiekin topo egitea (espero ez dugun hitz edo esamolde bat...), ezarritako arauak betetzen ez dituztelako dira ustegabeakoak. Apurketa hori bi mailatan gerta daiteke, maila indibidualean (hiztunak bere kabuz egin duena) edo maila orokorragoan (giza talde jakin batek joera hori bereganatzen duenean). Apurtze horiek sendotzen diren heinean arau zaharren lekuan berriak indartzen joango dira.

Egungo Erresuma Batuan arraza/etnizitatea da gizarte mailan eten-dura handiena eragiten duen gaietako bat. Eta horren ondorioz, marka etnikoa desberdintasun ezaugarriak adierazteko tresna oso erabilgarria bihurtu da. Gazteen artean, esaterako, bertan bizitzen jarritako etorkin komunitateekin duten harremana dela medio, hauen hizkuntza markak hartu dituzte komunikazio arau berriak sortzeko. Honela, komunikazio araudi berri horretan, perpaus egiturak aldatu beharrean, hizkuntza markak sinbolo gisa erabiltzen dituzte. Ingelesak ez diren etnia/kulturen markak erabiltzen dituzte gazteen taldetasun sentimendua indartzeko.

Rampton berak, beste lan batean dionez (Ramton, b; Harris, R; Leung, C (1997): "Multilingualism in England". *Annual Review of Applied Linguistics*, 17,224-241. or), ia oharkabean "multiracial urban vernacular"

*Gazteen artean,
esaterako, bertan bizitzen
jarritako etorkin
komunitateekin duten
harremana dela medio,
hauen hizkuntza markak
hartu dituzte
komunikazio arau berriak
sortzeko. Honela,
komunikazio araudi berri
horretan, perpaus
egiturak aldatu
beharrean, hizkuntza
markak sinbolo gisa
erabiltzen dituzte.*

*“Jatorrizko hiztun”
erabili ordez “hiztun
trebe” erabiltzea
proposatzen du. Besteak
beste, trebe izateak ez
duelako
autoidentifikazioarekin
loturarik, ez eta familia
edo herriarekin ere
hiztunak trebe izateaz
gain taldeko partaide
sentitu behar du,
taldetasunaren
kontzientzia izan
behar du.*

bat sortzen ari da. Ingelesaren gainean eraikia izan arren, etorkin komunitate indartsuenen ekarpenaz osatutako ingelera, indarreango ingelesarengandik desberdina eta talde izaera markatzeko berebiziko indarra duena

HIZKUNTZA ERREPERTORIOA ETA HIZTUNEN GAITASUNA

Errepertorioaren aberastasuna eta dibertentzia adieraztearen garrantzia azpimarratzen ari garen honetan, ezinbestekoa da hiztunen gaitasunari erreparatzea. Hiztun guztiek gaitasun bera al dute? Gizarte eleanitzetan, are gehiago ukipen egoera gogorretan, zein irizpiderekin sailkatu behar dira hiztunak?

Gure artean “ama-hizkuntza”, “etxeko hizkuntza” edo “jatorrizko hizkuntza” kontzeptuak hitzetik hortzera erabiltzen ditugu. Kontzeptu horiek, ordea, zer esaten digute hiztunaren hizkuntza gaitasunaz? Termino hauek balio al digute hiztunak sailkatzeko? Ben Rampton jaunak Erresuma Batuko egoera gogoan duela, terminologia hori arras zehazgabeak direla diosku. Eta horren aurrean “trebatasuna”, “eredentzia” eta “afiliazioa” kontzeptuak erabiltzea proposatzen du.

“Ama hizkuntza” edo “jatorrizko hizkuntzaren” arabera hiztunak sailkatzeak hainbat ezaugarri aldeztu aurretik onartzea esan nahi duela deritzo:

1. Hizkuntza eredentziaz jaso dela,
2. Hizkuntza horren hiztuna dela,
3. Hizkuntza hori ongi mintzatzeko gai dela,
4. Hori dela menderatzen duen hizkuntza.

Egilearen aburuz, ezaugarri horiek ez dira betetzen kasu guztietan. Eta gizarteak daraman bidetik geroz eta gutxiago beteko dira. Kontzeptuak argitzeko premia aldarrikatzen du, beraz.

“Jatorrizko hiztun” erabili ordez “hiztun trebe” erabiltzea proposatzen du. Besteak beste, trebe izateak ez duelako autoidentifikazioarekin loturarik, ez eta familia edo herriarekin ere. Dena den, termino honi berari ere mugak ikusten dizkio. Muga horien artean bereziki azpimarratzen du kontzeptu horrek ez duela hizkuntzaren balio sinbolikoa, talde identifikazioa, eraikitze duen indarra aintzatesten. Izan ere, hiztunak trebe izateaz gain taldeko partaide sentitu behar du, taldetasunaren kontzientzia izan behar du.

Horregatik, “trebatasunaren” ondoan, hizkuntza leiltasuna aipatzen du. Leiltasun hori bi bidetatik etor daitekeela dio: “eredentziaz” edo “afiliazioz”. Eredentzia gizarte loturen arabera gertatzen da, hots, gizarteak edo taldeak eredentziaz emandakoa da hiztunak duena. Afiliazioa,

berriz, taldetik kanpo sortutako atxikimendua da.

Ramptonek egiten duen bereizketak nabardura interesgarriak ditu guretzat. Izan ere, gurean geroz eta gehiago dira testuinguru mistoetan gizarteratzen diren hiztunak eta geroz eta gaitzagoa da zehaztea zein den jatorrizko hizkuntza. Gauzak honela, trebezia edo leialtasuna (eredentziakoa edo afiliatziokoa) aintzat hartzeak Euskal Herrian dugun egoera hobeto ulertzen lagun diezagukelakoan nago.

DIALEKTOLOGIA SOZIALAREN IKASGAIA: HIZKUNTZA ANIZTASUNA ARAU

James eta Lesley Milroy-k hizkuntza aldaera eta aldaketei buruzko ikerketan bide luzea egin dute. Belfasten egindako ikerketaren haritik (Milroy, Lesley (1987) *Language and social networks*. Oxford, Basil Blackwell) hizkuntza eta honen izari soziala ulertzeko urrats nabarmenak etorri dira. Bistan da Belfasteko egoerak ez duela lotura handirik gurea bezalako egoera batekin, besteak beste, haien lanak ingeles hiztunen komunitateari erreparatzen baitio batik bat eta gurea, aldiz, ukipen gogorreko testuinguru baita. Dena den, Milroy-tarrek, dialektologia sozialean aintzindari, ederki erakutsi dute hizkuntza ez dela denboraren joanean soilik aldatzen. Sinkronian bertan ere aldaketa nabarmenak izaten dituela frogatu dute. Hitzunaren klase sozioekonomikoaz gain, hitzunaren adina, generoa, talde etnikoa eta gizarte sarea bera aldaketa eragile izan ohi dira. Eragile horiek guztien eraginez osatzen da gizarte batean indarrean dagoen errepertorioa.

Milroy-tarren lanak ederki erakusten digu, dialektologia sozialaren ikuspegitik bederen, "hiztun taldea", "hizkuntz komunitatea" edo "klase soziala" kontzeptu murrizak direla hizkuntzak bere baitan bizi dituen aldaketak azaltzeko. Ramptonek adierazitako ildo beretik, hizkuntza, gizaratearen baitako aniztasun eta harreman sarearen baitan, errealtateari arrunt estuki atxikitako fenomeno dela diote.

Generoa, hitzun taldea, talde etnikoa edo sozialki esanguratsua den beste ezein kategoriak hizkuntza mailako adierazpena du. Horretan oinarrituz, eta gureari erreparatuz, oraindik orain nekez ezagutzen dugun euskararen bariazio errealtatea, teorikoki behintzat, ontzat eman beharrekola dela onartzea behartzen gaitu, eta beraz, bariazio geografikoarekin batera (euskalkiak) bariazio sozialari ere esparrua ematera.

ALDAERAK EZ DIRA IRAKASTEN, BIZI EGIN BEHAR DIRA

Charles V. Taylor jaunak, lanbidez ingeles irakaslea, hizkuntza batek bere baitan dituen aldaeren aurrean argi eta garbi adierazten du hizkuntza irakasleek ezin dituztela aldaera horiek irakatsi. Edo bestela esanda, *aldaketa* hiztunak erabileraren poderioz bereganatu behar dituela. Horretara-

Hitzunaren klase sozioekonomikoaz gain, hitzunaren adina, generoa, talde etnikoa eta gizarte sarea bera aldaketa eragile izan ohi dira. Eragile horiek guztien eraginez osatzen da gizarte batean indarrean dagoen errepertorioa.

Antzinako dialekto kulturalak mazedonieraren aldaeren eragin handia zuen, batasun prozesuan zehar hazitako belaunaldiak marka dialektal horiek erabat ezabatzerik lortu ez baldin bazuen ere, serbiera edo hungarieraren eragina bereganatuz eraiki zuen dialekto kultural berria.

ko sei arrazoi ematen ditu (Taylor, C.V. (1984): "Varieties are caught, not taught". *World Language English*, Vol. 3, 226-239.or):

- Ikasleek ez dute berez aski gogorra baden ikas-prozesua aldaerak ikasten pasa nahi. Horrek, ordea, ez du esan nahi jerga ikasteko irrikitan ez daudenik. Baina gauza bat da hiztegi-esamolde multzo bat ikastea eta beste bat aldaera bat, gure kasuan euskalki bat, esaterako, ikastea.
- Hizkuntza ikasteari ezin zaio ikasleak duen grinatik haragoko helbururik jarri. Hots, bere helburua ez baldin bada aldaera hori bereganatzea alferrik ari gara.
- Ikasleak ez du bi aldaera desberdin menderatzera iritsi nahi.
- Ez da egokia ikasle bat berari ez dagokion aldaera bat ikastea.
- Nekez lortuko dugu irakasle batek berea ez den beste aldaera bat menderatzea ikasleen aurrean berea balu bezala jarduteko.
- Espero ez den aldaera eskolara eramanez gero, komunikazioak behera egiten du.

Beraz, Taylor jaunaren arrazoietan badago guretzat ikasgai argigarri-rik. Izan ere, azken aldion sarri entzun dugu gure ikasleek "gazte-hizkera" bereganatu behar dutela eta tartean izan da eskolari helburu hori eman dionik ere. Taylor jaunaren ikasgaiak ederki erakusten digu, hizkuntza eskoletan aukera gutxi dagoela urrats hori arrakastaz emateko.

HIZKUNTZAREN ESTANDARIZAZIOA ETA GAZTE HIZKERA URBANOA

Ingelesaren baitako aniztasunak sortzen dituen gora-beherak aski aipatu ditugulakoan, jo dezagun, esaterako Europako beste zenbait herritan gertatzen dena aztertzea. Biziki interesgarria da, esaterako mazedonieraren bilakaeran azken urratsak azaltzea. Mazedonieraren batasun prozesuak mende erdia bete duen sasoian, eta batasun prozesu horretan dialekto kulturala, gure euskara estandarren parekotzat har genezakeen hori gazteen eskutik bilakaera ildo berri batean sartu da.

Elena Petroskaren lanak (**Elena Petroska**: "The cultural dialect of the younger generation in Skopje". *International Journal of the Sociology of Language*, 131, 1998) erakusten digunez, Skopje, hiriburua, hiriburua izateaz gain, hiri unibertsitarioa izateagatik gazteen bilgune aipagarria bihurtu da. Bertako aldaera jotzen da mazedoniera estandarretik gertuen dagoe-na eta honen inguruan hedatu zen dialekto kulturala. Antzinako dialekto kulturalak mazedonieraren aldaeren eragin handia zuen, batasun prozesuan zehar hazitako belaunaldiak marka dialektal horiek erabat ezabatzerik lortu ez baldin bazuen ere, serbiera edo hungarieraren eragina bereganatuz eraiki zuen dialekto kultural berria. Egungo gazteak, berriz,

eskola bidez jasotako idatzizko batuaren gainean eraiki dute haien dialektokulturala.

Belaunaldi gazte honek diskurtso komunitate bakarra osatzen du eta hizkuntza ezaugarri propio eta bereizgarriak ditu eta atxikimendu handia sentitzen du bere aldaerarekiko eredu normak ezartzen duenari kontra egiten dion neurrian.

Aldaera kultura hau, norma oinarri duela bide erabat naturalean sortu zen eta ahozko komunikazioan erabiltzen da. Aurreko aldaera kulturalarengandik zertan bereizten den? Honakoak ez duela aldaera dialektal edo auzoko hizkuntzekiko zorrik. Mazedoniera estandarrean hezitako hiztunek erabileraren poderioz eraiki duten aldaera da.

Belaunaldi gazteak diskurtso komunitate bakarra osatzen du eta hein berean bakoitza gazte talde txikiagoetako kide da, estilo eta bereziko bakoitza. Ingelesak berak, esaterako, eragin nabarmena du, nahiz eta ingelesaren marka hori ez duten denek onartzen.

Honek ere badu guretzat zer esanik eta Ramptonen ikasgaiarekin lotura nabarmena erakusten digu. Izan ere, gure gazteak aldaera estandarrean heitzen ari garen neurrian orain arte inoiz izan ez zuten oinarri batua ari gara eskaintzen eta bestalde, gazte bakoitzak bere gaitasun, jorra eta jatorriaren arabera izan ditzakeen ezaugarrien arabera (euskalkia...) taldeetan bereizteko modua du. Dena den, lektzio garrantzitsuena honakoa da: Mazedonian gertatu denak gure kasuarekin parekotasun handia du, ondorio bera izango ote du, hemen ere diferentzia dialektalen gainetik aldaera batu bat sortuko ote da? Zein eragin izango dute gurean gaztelerak eta frantsesak?

HIZKUNTZA ALDAERA DESBERDINAK, HELBURU DESBERDINAK BETETZEKO

Jam-Petter Blom eta John J. Gumperz-en artikulu ezagunak (Jan-Petter Blom, John J. Gumperz (2000) "Social meaning in linguistic structure: code-switching in Norway", in: *The bilingualism reader* / Li Wei (arg.). Londres: Routledge, 2000) hizkuntza aniztasunaren eremura, euskararentzat argigarri gerta daitekeen erreferentziak hurbiltzen dizkigu. Bi ikerlari hauek Norbegiako herri txiki bateko errealitatea dute aztergai. Herri horretan bi aldaera indarrean egonik, bata Ranamal eta Bokmal. Lehena aldaera estandarra da eta adierazkortasun soziala du, berau erabiliaz hiztunari garrantzia berezia aitortzen zaio. Bigarrena, berriz, dialektala da eta solaskidearekiko hurbiltasuna, elkartasuna, adierazteko erabiltzen da. Aldaera hauek erabiltzeko muga soziolinguistikoak hartu behar dira aintzat. Ikerketak berarekin dakarkigun ikasgai nagusia honakoa da: eginkizun desberdinetarako aldaera bat baino gehiago izateak, kasu honetan estandarra eta dialektala, bi aldaerak gorde eta erabiltzeko bidea egiten du. Gizarte egiturari eusten zaion bitartean honelako bereizketa

Belaunaldi gazte honek diskurtso komunitate bakarra osatzen du eta hizkuntza ezaugarri propio eta bereizgarriak ditu eta atxikimendu handia sentitzen du bere aldaerarekiko eredu normak ezartzen duenari kontra egiten dion neurrian.

**Jakin badakigu kode
altertantzia bi
hizkuntza ukipenean
dauden testuinguruetan
agertzen dela eta
baliabide komunikatibo
garrantzitsua gertatzen
dela honelako
testuinguruetan.
Alternantzia maiz
gertatzen bada hizkuntza
batetik besterako eragina
indartu egiten du eta
horrek hizkuntza
ordezkapena ere ekar
dezake.**

bat guztiz bideragarria izateaz gain, beharrezkoa ere gertatzen da gizarte egitura eta giza harremanak behar bezala adierazteko.

Gurean aurkikuntza honek badu esangura aipagarriarik. Besteak beste, tokiko euskara eta euskara estandarraren arteko auzian argi egiten baitu. Bistan da Norbegiako adibideak komunitate txiki bat hartzen duela aintzat eta euskararen kasuak herriko mugak gainditzen dituela. Hala eta guztiz ere, gure artean egun oraindik tokiko euskara bizi-bizi dagoen eremuetan tokikoa gorde eta estandarra hedatzeak euskara gorde, bere funtzionaltasuna areagotu eta estandarizazioan laguntzeko duen potentzialitatea agerian uzten du.

KODE-ALTERNANTZIAREN BIDETIK, SARDINIERAREN HERIOTZA

Rosita Rindler-en lanak (Rosita Rindler Schjerve: "Codeswitching as an indicator for language shift? Evidence from Sardinian-Italian bilingualism", in: *Codeswitching worldwide* / edited by Rodolfo Jacobson. Berlin: Mouton de Gruyter, 1998) Sardinian bertako hitzunek sardiniera-italiera alternantziak dituen ezaugarriak aztertzen ditu. Izan ere, sardiniera da Italian hiztun gehien duen gutxitutako komunitateetako bat. Jakin badakigu kode altertantzia bi hizkuntza ukipenean dauden testuinguruetan agertzen dela eta baliabide komunikatibo garrantzitsua gertatzen dela honelako testuinguruetan. Alternantzia maiz gertatzen bada hizkuntza batetik besterako eragina indartu egiten du eta horrek hizkuntza ordezkapena ere ekar dezake. Ordezkapena ukipenean dauden bi hizkuntzatariko bat bestea baino askoz ahulagoa denean gertatzen da. Sardinian horixe da harremana eta ukipenaren poderioz relexifikazio handia gertatu da denboraren poderioz. Sintaxi mailako aldaketa batzuk ere gertatu dira. Morfologia eta fonologian, berriz, nahikoa sendo eusten dio sardinierak. Gaur egun, kode alternantzia ohiko komunikazio baliabidea da sardiniera/italiera komunikazioan. Maiztasun handiz gertatzen da. Alternantzia gehien egiten duten hiztunak sare sozial irekiak dituzten horiek dira, eta, aldiz, gutxien, sare sozial itxietakoek.

Xehetasun asko damaigu Rosita Rindler andereak baina, azpimarratzekoa da, hainbat alderditan Sardiniako egoerak gurearekin duen antzekotasuna. Izan ere, gure kasuan distantzia linguistkoa (euskara/gazteleara, euskara/frantsesa) handia baldin bada ere, alternantziak presentzia handia du, batez ere gazteen lagunarteko hizkeran. Gainera, Kike Amorrizetek bere elkarrizketan azpimarratzen duen bezala, gure erreferentzia kulturalak mundu ruraletik atera direlarik, gaztelararen bidez ari dira eraikitzen. Beraz, ez ote dago hor relexifikazioa erdararen bidez gertatzek arriskurik? Are gehiago, bi izanik eragin poloak (frantsesa eta espainola) ez ote dira bi eremu eraikiko etorkizunean, dagoeneko Ibon Sarasolak "Ajeetan" adierazi bezala?

AZKEN GOGOETA

Bistan da erabateko aldea dagoela euskaldun komunitateak bizi duena eta hemen aipatu ditugunen artean. Beste herriek bizi dutenak, ordea, gogoetarako bide joria eskaintzendigu. Izan ere, sendo errotutako kultura eta hizkuntza baten baitan dibertentzia eraiki beharrak (Sarasuak "Desberdingintza" deitu zuen hura) beste hizkuntza eta kulturetako markak hartzera eraman ditu gazteak. Eta gazte euskaldunekin antzeko zerbait gertatzen dela adierazi digu Kike Amonarrizek bera zenbaki honetan jasotako elkarrizketan. Beraz, badirudi gurean ere, gure gizarteak aurrera egiten duen heinean desberdingintzarako ateak zabaldu behar izango ditugula. Auzia, ordea, betikoa da, nori zabalduko zaion, zenbateraino zabalduko zaion eta indartsuenen eragina apaltzeko zenbateraino zabalduko dugun guk euskararen atea.■

*Beraz, badirudi gurean
ere, gure gizarteak aurrera
egiten duen heinean
desberdingintzarako
ateak zabaldu behar
izango ditugula.*